

Antxiñako fotografixia

Uribarriko karrerista gaztiak

Uribarri auzoko San Andres jaixak famauak izaten ziran Oñatin. Santuaren eguna (zemendixaren 30a) ez ezik, bixamona be ospaketan zan. Egun horretarako hainbat jolas eta proba antolaketan zittuain auzoko gaztiak: aizkol jokuak, zezen-korridia edota **Uribarriko subidia**, bestiak beste. Azkenengo honetan bertako mutikotiak hartzen euen parte, hau da, urte batzuk lehenago Soralezeko Gregorio Idigoras edo Banastagingo Klaudio Leturiaga txirrindulari ezagunak urratutako bidiari jarraitu gura otsaiñak.



Bizikleta-igoera hau motza baiña latza izaten zan: Soraluzetik Uribarriko iturriraiñokua. Aldapa gogorrari heldu bihar izaten xakon, hotz-hotzian, beroketako asti barik; argazkixan agerketan dan **Soraluzeko baserri zaharrian urten eta Goittikua baserri inguruan eguen errekarritz egindako txorimaluaren pareraño**. Gaur egun etxaku bata be geraketan: ez Soraluze baserrixa, ezta iturririko txorimalua be. Urteixerarako gertu ikusten dittugun mutikuok honeitxek dittuzue ezkerretik eskumara:

Aurreneko illarakuak: **Antonio Bikuña**, Txope; **Joxe Antonio Mur**, Otadui Etxebarrikua; **Migel Mari Intza**, Azkarraga Txikikua; **Julio Bikuña**, Txope; **Bixente Intza**, Azkarraga Txikikua; **Andres Kortabarria**, Gogordokua; eta **Antonio Agirrebaltzategi**, Baltzategikua.

Motordunak eta atzeko illarakuak: aurrian, **Jabier Guridi**, Erostege Txikikua, salidia emuteko besua jasota; atzerago, **Kaxinto Igartua**, Sagastizabalgua, karrera izten zixoian motoristia; atzeko bi mutikuak: **Jexux Biain** Etxezar, orduan *Paterretxen* bizi zana; **Jabier Txintxurreta**, Latustegikua; eta atzeko emakumia, **Frantziska Idigoras**, Soraluzekua.

Karrera hau behin baiño gehixagotan egin baldin bazan be, fotografixa honetakua 1960-1961 ingurukua izan leikiela esan doskue. **Irabazlia**, berriz, **Joxe Antonio Mur** izango zan, orduko igotzaillerik onena bera zan-eta. Murtarrak naparrak ziran jatorritz; aitta Arantzazuko eliziaren obretara lanera etorri eta familia ekarri eben Oñatira; urte batzuetan Otadui Etxebarrin bizi izan ziran, baserri hori Arantzazuko frailiena zalako. Joxe Antonio gerora txirrindulari profesionala izatera ailegau zan, KAS taldian jardun eben eta Araba aldian beti ibili izan da ziklismo kontuetan.

J. E.

Fotografixa eta argibidiak Julio Bikuñak eskuratu dosku. Milla esker!

Zemendiko aldizkari honen alian agertu geben argazkiko datu bat zuzendu eta beste bat osotu gura dogu: poxpoliñen eta dantzariaren andereño-zaintzaillien artian datorren Pastora ezta Arrazola, Artetxe baiño; eta Genobeba, Dorotea eta Pastoraz gaiñera, taldetxo horretako beste bi izen be aittatu biharrekuak dirala uste dogu: Karmen Aiañtui eta Nati Ortiz de Zarate. Informaziño hau Maria Milagros Madinazkoitiari zor xaugu.